# Umeen erdiak euskara ikasten du Ipar Euskal Herriko ikastetxeetan

Lehen aldiz 4.000 ikasleren heina gainditu du Seaska ikastolen sareak



*Franck Dolosor*
**BAIONA**

Irriak, oihuak eta negar malkoak, denetik nahasi ohi da eskola sartze garaian. Euskarak ere gero eta toki handiagoa du Ipar Euskal Herriko ikastetxeetan ikasgela elebidun publiko, pribatu eta Seaskaren ikastolak kontuan hartuz aurten ere Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoko haurren erdiak euskara ikasiko baitu lehen hezkuntzan. Kopuru hori asko apaltzen da, halere, bigarren hezkuntzan.

Mattin Ahetzeko bertsolari zena pozik egon liteke ikastola berria zabaldu baitute bere herrian. Hain berea zuen irriarekin gustura ikusiko luke Seaskaren hogeita hamazazpigarren ikastolaren irekiera. Ahe-tzeko ikastola berrian sei haur dabiltza eta laster beste hiru elkartuko zaizkie. Iparraldeko lehen ikastola, ondoko herrian, Arrangoitzen, zabaldu zuten duela 50 urte bost umeekin eta gaur egun sare osoan lau mila haur pasa daude.

"Lapurdiko kostaldeko ia herri guztietan dago orain ikastola, Hendaiatik Bokaleraino, euskara kenka txarrenean den eta biztanle gehien bizi den eremuan" dio Peio Jorajuria Seaskaren presidente izendatu berriak. "Gero eta haur gutxiago sortzen da baina guk gero eta ikasle gehiago biltzen ditugu, lehen aldiz lau mila baino piska bat gehiago" azpimarratu du Paxkal Indoren lekukoa hartu duen azkaindarrak. Bokaleko ikastolan ikasleen kopurua bikoiztu dela begi onez ikusten dute euskaltzaleek.

Nabarmen hazi dira ere Lekorne, Basusarri edo Senpereko ikastolak. Eta garapen bera dute ere bigarren hezkuntzan, Estitxu Robles Baionako kolegioan, Ziburuko Piarres Larzabal gunean edo Lartzabalen dagoen Manex Erdozaintzi Etxart ikastegian. Duela bi urte, euskarazko lanbide heziketa sortzearen aldeko apustua egin zuen Seaskak eta jada 50 ikasle daude Baionan Bernat Etxepare lizeoak eskaintzen dituen sail profesionaletan. Peio Jorajuria pozik dago joan den uztailean lankidetza hitzarmena izenpetu baizuten azkenean Fran-tziako Hezkuntza saila eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoarekin. "Orain hitza errespetatu eta baliabideak emango dizkigutela espero dugu".

Hendaian ia bi mila gazte itzuli dira ikastegietara. 1.363 ikastetxe publikoetan dabiltza, 375 Jondoni Bixintxo eskola pribatuan eta 247 ikastolan.

Denera 31 nazionalitate desberdinetako haurrak dabiltza Hendaiako ikastegietan eta horien artean erdiak bertan hitz egiten du bakarrik frantsesez.

Eleaniztasuna eta aniztasuna daude ere Frantziako Estatuko hainbat tokitan. 15.000 gaztek ikasten dute okzitaniera, bretoiera, katalana edo alsaziera hutsean irakasten duten ikastegi sareetan. Baliabide urriak izan arren, lurralde guztietan gero eta ikasle gehiago hartzen dituzte. "Hizkuntz gutxituak gaixotasun gisa ikusten ziren duela zenbait hamarkada baina gaur egun guraso gazteek ulertu dute eleaniztasuna eta planetaren zaintzea gauza bera direla" dio Jean Louis Blenet Frantziako errepublikako hizkuntzen goi erakundearen presidenteak.

"Eskaera soziala gero eta handiagoa da. Montpellier hirian arrakasta oso handia du Calandretak eta urtero 300 ume bertara sartu ezinik gelditzen dira". Bretañan 4.337 ikasle dabiltza 55 Diwan ikastegietan, 70 Calandretek 3.930 gazte biltzen dituzte eta La Bressola sareko 8 guneek katalana irakasten diote mila ikasle ingurui. ●

**DATUAK**

● **Hazten ari da.** Euskarak gero eta toki handiagoa du Ipar Euskal Herriko ikastetxeetan. Kopurua alabaina asko apaltzen da bigarren hezkuntzan.

● **Hendaiaren kasua.** Hendaiako ikastegietan denera 31 nazionalitate desberdinetako haurrak dabiltza, eta horien artean erdiak hitz egiten du bakarrik frantsesez.

**ADIERAZPENAK**

**PEIO JORAJURIA "IKASTOLA BAT KOSTALDEKO IA HERRI GUZTIETAN"**

"Lapurdiko kostaldeko ia herri guztietan dago orain ikastola, Hendaiatik Bokaleraino".

**"HAUR GUTXIAGO SORTZEN DA, BAINA GU GORA GOAZ"**

"Gero eta haur gutxiago sortzen da baina guk gero eta ikasle gehiago biltzen ditugu".



**Ziburuko ikastola lau umerekin zabaldu zuten duela sei urte; gaur egun 40 dauzka.** *Argazkia: F. Dolosor*

# Txioen bidez ematen diren iritziak aztertzeko tresna

EHUk eta Elhuyar Fundazioak sare sozialetan dabiltzan euskarazko mezuak ikertuko dituzte

**DONOSTIA** – Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Informatika Fakultateko IXA Taldeak eta Elhuyar Fundazioko Hizkuntza eta Teknologia Unitateak euskarazko txioen sentimenduak aztertzen dituen tresna bat sortu dute, euskal herritarrek sare sozialetan ematen duten iritzia ezagutzeko. Hain zuzen, *Twitter* sare sozialean botatzen diren txio guztietatik gai baten inguruan emandako iritziak erauzi eta sailkatzeko sistema garatu dute bi erakundeek.

Internet eta, bereziki, sare sozialak, erabiltzaileek sortutako edukien iturri oparoa dira, besteak beste, zernahiri buruzko iritziak ematen dituzte erabiltzaileek, nonahi eta noiznahi, doan. Informazio horrek "berebiziko garrantzia du erakunde, enpresa, eragile eta abarrentzat, beti izan baitute interesa jakiteko herritarrek, erabiltzaileek edo bezeroek zer iritzi duten haiei buruz. Tradizionalki, kostu handia duten inkesta edo galdera-sorta bidez eskuratu izan dute informazioa, baina laginak beti txikiak izan dira", azaldu du EHUko IXA Taldean zuzendutako lanaren egile nagusi Iñaki San Vicentek. Orain, berriz, datu kantitate erraldoiak sortzen dira sare sozialetan, eta, oro har, Interneten. Erronka, ordea, hortik interesa duen informazioa behar bezala erauzi eta sailkatzea da. *Sentimenduen Analisia* deritzon ikerketa arloak edonolako testu batean iritzi edo sentimendu positibo edo negatiboren bat adierazten ote den ebazteko metodo automatikoak bilatzen ditu. – *E.P.*

# MONDRA
# REFORZA

Ofrecerá este año 31 títulos de grado y posgrado, de los cuales 18 serán duales ● Forma anualmente a más de 7.000 profesionales

**DONOSTIA** – El rector de Mondragon Unibertsitatea, Vicente Atxa, destacó ayer la apuesta por la innovación, la formación continua y la investigación en colaboración con las empresas como "principales desafíos" de esta institución académica, que busca reforzar su impacto positivo en la economía vasca.

Atxa hizo estas declaraciones en el acto oficial de apertura del curso académico 2019-2020 que Mondragon Unibertsitatea (MU) celebró ayer en su Facultad de Empresariales de Oñati en presencia del lehendakari, Iñigo Urkullu, informó la universidad en un comunicado.

Representantes institucionales y políticos, entre ellos la consejera de Educación, Cristina Uriarte, tomaron parte en la ceremonia con la que arrancó el nuevo curso lectivo de Mondragón, que ofrecerá este año 31 títulos de grado y posgrado –16 grados y 15 másteres– de los cuales 18 serán duales.

El rector Vicente Atxa desgranó los "desafíos principales" a los que se enfrenta la universidad, alineados con el Plan del Sistema Universitario Vasco, que buscan impactar más positivamente en la construcción de una Euskadi que se convierta en un modelo de desarrollo humano sostenible, objetivo inicial del movimiento cooperativo de Mondragon".

En su opinión, "el conocimiento, la tecnología, la industria y los mercados han adquirido en este siglo tal complejidad que pretender abordar la formación de los jóvenes de la misma manera que el siglo pasado es querer retrasar el reloj de la historia y del progreso".

Atxa hizo una defensa de la formación continua y recordó que Mondragon Unibertsitatea forma anualmente a más de 7.000 profesionales. "No podemos permitir que las personas en edad activa puedan quedarse rezagadas en las competencias que exigirán los nuevos puestos de trabajo", añadió.

El rector dedicó un apartado especial a la investigación y abogó por "apoyar a las empresas a ser competitivas a nivel global" y por aumentar el impacto de sus competencias en innovación en el tejido empresarial local.

# AGON UNIBERTSITATEA BUSCA AR SU IMPACTO EN LA ECONOMÍA VASCA

El lehendakari, por su parte, destacó la relevante aportación que Mondragon Unibertsitatea realiza para fortalecer el sistema universitario vasco, formar talento altamente capacitado y contribuir al avance de la sociedad vasca.

"Habéis abierto camino y vamos a seguir trabajando juntos, cooperar más para formar mejor y para ofrecer más oportunidades a la juventud", añadió Urkullu, quien subrayó que este centro universitario es "pionero" en "metodología educativa", en su relación con la "economía productiva real" y en "emprendimiento e innovación".

El lehendakari compartió también el "ideario" de este centro al servicio de la "transformación en positivo" de la sociedad.

Esta universidad, que contó el año pasado con 5.125 alumnos matriculados, un 6,7% más que el ejercicio anterior, inauguró su nuevo curso lectivo con este acto académico, en el que el doctor de la Facultad de Empresariales Eduardo Castellanos pronunció la lección inaugural. – *Efe*



**Mondragon Unibertsitatea inauguró ayer su nuevo curso lectivo con un acto académico.** *Foto: N.G.*

